



Bezeroarekiko harremana

- Laguntza zerbitzua

Bezeroak laguntzaren beharrea badaude, aplikaziotik, web-orritik, dei bitartez korreo elektronikotik eta instagrameko kontutik edozein duda edo arazo galdetzeko aukera izango du. Laguntza zerbitzu hau adimen artifizialaren bidez sortutako Bot-ak eta enpresako langileek eskainiko dute. Bot-ak 24 orduko zerbitzua izango du eta aplikazioan eta web-orrian egongo da eskuragarri. Gmail, Instagram eta dei bidezko kontaktua berriz, pertsona batek eramango du baina motelagoa izango da.



- Publizitatea

Bezeroak erakartzeko, Instagramen eta beste sare sozialetan publizitatea egingo dugu bideo motz eta entretenigarrien bidez. Gainera, Donostian zehar kartelak jarriko ditugu, batez ere turistak dabilzaten tokietan, hala nola, tren geltokietan, autobus geltokietan... Horrela poliki-poliki gure proiektu berritzaileak indarra hartuko du.

- Fidelitasuna

Gure enpresak bezeroak mantentzeko kalitate handiko zerbitzuak eskainiko ditu eta prezio baxuak mantenduko ditu, bezeroek esperientzia errepikatu dezaten. Horrez gain, kontsumitzaileei Gmail bidez publizitatea eta ekitaldi interesgarriaren informazioa bidaliko zaie (newsletter), Donostiara itzultzeko eta zerbitzua berriz erabiltzeko. Bezeroen fidelitasuna lortzeko, esperientzia ona emango diegu lehenengo bezeroei, eta haien iritziak zabaltzeko aukera sortuko dugu Gmailen bidez inkestak bidaliz, horrela jende gehiago animatuko da gure zerbitzua probatzera eta fidelitatea mantenduko dute.

